

Emakumeen eta Gizonen II. Berdintasun Plana 2022-2025



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Egilea:
equipare
koop elk txikia

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	1
2.	ARAU-ESPARRUA.....	2
3.	II. BERDINTASUN PLANAREN PRINTZIPIO OROKORRAK.....	3
4.	II. BERDINTASUN PLANA EGITEKO PROZESUA.....	8
5.	II. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA ETA EZAUGARRIAK.....	10
5.1.	GOBERNU ONAREN EREMUAN PLANTEATUTAKO HELBURUAK.....	11
5.2.	KOMUNIKAZIOAREN EREMUAN PLANTEATUTAKO HELBURUAK.....	11
5.3.	GIZARTE-ERAGINAREN EREMUAN PLANTEATUTAKO HELBURUAK.....	12
5.4.	II. BERDINTASUN PLANAREN EZAUGARRIAK.....	12
6.	II. BERDINTASUN PLANA BULTZATU, KOORDINATU, JARRAITU ETA EBALUATZEKO SISTEMA.....	13
6.1.	BULTZATU, INPLEMENTATU, KOORDINATU ETA JARRAITZEKO EGITURA: BERDINTASUN TALDEA.....	13
6.2.	JARRAITU ETA EBALUATZEKO SISTEMA.....	13
6.3.	BALIABIDE EKONOMIKOAK.....	13
7.	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA (2022-2026).....	14
7.1.	“GOBERNU ONA” EREMUA.....	14
7.1.1.	1. EKINTZA-ILDOA. BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA.....	14
7.1.2.	2. EKINTZA-ILDOA. GENEROAREN IKUSPEGIA TXERTATZEA.....	17
7.1.3.	3. EKINTZA-ILDOA. LANGILEAK BERDIN KUDEATZEA.....	19
7.2.	KOMUNIKAZIOAREN EREMUA.....	21
7.2.1.	4. EKINTZA-ILDOA. BARNE KOMUNIKAZIOA.....	21
7.2.2.	5. EKINTZA-ILDOA. KANPO KOMUNIKAZIOA.....	23
7.3.	GIZARTE-ERAGINAREN EREMUA.....	25
7.3.1.	6. EKINTZA-ILDOA. EMAKUMEAK TALDEAN ETA GIZARTEAN AHALDUNTZEA....	25
7.3.2.	7. EKINTZA-ILDOA. EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTA.....	27
7.3.3.	8. EKINTZA-ILDOA. ZAINZAK ONESTEA.....	28

1. SARRERA

Bizkaiko Batzar Nagusiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin konpromisoa dute. Interes horren lekuko, Bizkaiko Parlamentuak 2017. urtean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana bultzatu zuen, erakundearen gobernantzan berdintasuna sustatzeko.

I. Planaren indarraldiaren azkeneko urtean (2020. urtean) haren ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa egin zen, lorpen eta erronkak identifikatzeko eta, bide batez, berdintasunaren arloan plangintza berrian aintzat hartzeko.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak 4 urteko indarraldia du, eta 2025eko abenduan amaituko da. Berdintasunaren arloan jardun onak mantentzeko estrategiak ditu, I. Planean hartutako konpromisoaren ondorioz dagoeneko erakundeak aplikatu arren. Halaber, lortzar dauden erronketara iristeko estrategiak ageri dira, I. Plana ebaluatzean identifikatu ondoren eta Batzar Nagusietako taldeek haien ekarpenak egin ostean.

Ildo horri eutsiz, garrantzitsua da Batzar Nagusietako taldeen partaidetza aktiboa Plan berri honi begira ekintzak identifikatzeko, eta, gainera, aukera bat da ordezkari politikoek garatutako zeregin politikoan berdintasunaren begirada neurri handiagoan txertatze aldera.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak tresna erabilgarria izan nahi du berdintasunaren printzipioa eta generoaren ikuspegia erakundearen bizitzan txertatzen jarraitzeko eta, bide batez, izan daitezkeen genero-arrakalak prebenitu eta horien aurrean jarduteko.

Horrez gain, plangintza berri honek herritarrentzako estrategiak ditu. Helburuak honako hauek dira: feminismoaren lorpenak eta Bizkaiko gizarteari emakumeen egindako ekarpena ikusgai bihurtu eta onestea, emakumeenganako indarkeria matxista prebenitu eta hari aurre egitea eta zaintzak pertsonen eskubide gisa eta berdintasunezko gizartea eraikitzeko elementu nagusi bezala onartzea.

2. ARAU-ESPARRUA

Berdintasun-politikei buruz hurrengo arau-esparruak emakume eta gizonen berdintasun-planak justifikatzeko testu garrantzitsuenak aipatzen ditu.

NAZIOARTEKO EREMUA

- Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda
- Beijingo Emakumeari buruzko Mundu Konferentzia (1995) y Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma, 2015ean New York-en berrikusia eta berretsia (Pekin+20)
- Emakumearen aurkako diskriminazio-modu guztiak ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW 1979 eta 1983an Espaniar Estatuak berretsia)

EUROPAKO EREMUA

- Europar Kontseiluarean genero berdintasunerako 2020-2025 Estrategia
- Istanbulgo Hitzarmena, emakumeenganako indarkeria eta etxeko indarkeriari aurre hartzeari eta borrokatzeari buruzkoa (2014an Espaniar Estatuak berretsia)

ESTATU EREMUA

- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerakoa
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa
- Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna, 2017ko abenduan onartua

AUTONOMIA EREMUA

- EAEko Emakume eta Gizonen berdintasunerako VII . Plana
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa


FORU EREMUA

- Emakume eta Gizonen berdintasunerako VI . Foru Plana (2021-2024)
- 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa

3. II. BERDINTASUN PLANAREN PRINTZPIO OROKORRAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak Euskadiko botere publikoen jarduketa bideratu behar duten printzipio orokorrak xedatzen ditu. Gaur egun, Berdintasunerako Euskal Legea Legebiltzarrean izapidetzen ari da, edukiak sar daitezten, legea berdintasunaren alorrean gizarte-erronka berrietara eta arau-testuingurura egokitzeko.

Horregatik, Bizkaiko Batzar Nagusien II. Berdintasun Plan honek printzipio modura onartu ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketari buruzko lege-proiektuak adierazitakoak. Horrez gain, zeharkako printzipio gisa interseksionalitatea aintzat hartu du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Arauak 3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.



1. TRATU-BERDINTASUNA

Debekatuta dago pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein dela ere horretarako erabilitako modua. Lege honen ondorioetarako:

- a) Zuzeneko diskriminazioa egongo da pertsona bat beste bat baino modu txarragoan tratatzen denean, izan denean edo trata daitekeenean, sexuaren edo sexuarekin zuzenean lotutako inguruabarren ondorioz, hala nola haurdunaldia edo amatasuna. Delitu gisa tipifika daitekeen arren, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena sexuagatiko zuzeneko bereizkeriatzat hartzen dira.
- b) Zeharkako bereizkeria egongo da itxuraz neutroa den egintza juridiko, irizpide edo praktika batek sexu bereko pertsonen proportzio nabarmen handiago bati kalte egiten dionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo praktika hori egokia eta beharrezkoa denean eta sexuarekin lotuta ez dauden irizpide objektiboekin justifika daitekeenean.
- c) Ez dira sexuagatiko diskriminaziotzat hartuko, emakumeei eta gizonei tratamendu desberdina ematea planteatzen duten arren, justifikazio objektibo eta arrazoizkoa duten neurriak, besteak beste, honako hauetan oinarritzen direnak: emakumeentzako ekintza positiboan, sexuak arrazoi biologikoengatik bereziki babesteko premian, edo gizonak etxeko lanetan, pertsonen zaintzan eta berdintasunaren aldeko lanean eta lanean sar daitezten sustatzean.

Euskal botere publikoek bereizkeria anizkoitzaren aurka egingo dute, eta emakumeen edo emakume-taldeen oinarritzko eskubideak benetan baliatzen direla bermatuko dute, baldin eta diskriminazio-egoerak sor baditzakete, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelakoak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, sexu-identitatea, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

Gainera, ikuspegi interseksionala sustatu behar dute, eta horrek esan nahi du, lege honen ondorioetarako, kontuan hartu behar dela sexua nola erlazionatzen eta interakzionatzen den aipatutako gainerako faktoreekin hainbat mailatan eta, askotan, aldi berean, maila desberdinetan, eta nola sortzen diren identitate gainjarri eta interseksionatuak, bai eta egoera eta botere- eta zapalkuntza-ardatz desberdinak eta elkarri lotuak ere.

2. AUKERA-BERDINTASUNA

Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan onar daitezkeen gainerako oinarritzko eskubideak, baldintza berdinetan baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak kontrolatzea eta eskuratzea barne.

Plan honen ondorioetarako, aukera-berdintasuna, boterea eta baliabide eta onurak eskuratzeko abiapuntuko edo hasierako baldintzei ez ezik, horiek gauzatzeko eta kontrolatzeko baldintzei ere dagokiela ulertu behar da. Era berean, euskal botere publikoek irisgarritasun unibertsala bermatuko dute, lege honetan araututako eskubideak benetan erabiltzea eta baliabideak eskuratzea oztopa edo eragotz ez dezaten irisgarritasuna sustatzeari buruzko legerian ezabatzen diren oztupoek. Horretarako, neurri egokiak hartuko dituzte baliabideetan, zerbitzuetan eta prozeduretan arrazoizko doikuntzak egingo direla ziurtatzeko, nazioarteko itunetan eta gai horri buruzko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera.

3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA PREBENITZEA ETA DESAGERRARAZTEA

Euskal herri-aginteek zeharka txertatuko dute beren politiketan eta ekintzetan emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta desagerrarazteko helburua, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen muturrekoagoa den heinean.

Era berean, euskal botere publikoen lehentasuna izango da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta osoa ematea, berreskuratzea eta erreparazioa ematea.

4. ANIZTASUNA ETA EZBERDINTASUNA ERRESPETATZEA

Botere publikoek beharrezko bitartekoak jarriko dituzte sexuen arteko berdintasunerako prozesua emakumeen eta gizonen arteko aniztasuna eta desberdintasunak errespetatuz egin dadin, biologiari, bizi-baldintzei, helburuei eta premiei dagokienez, eta emakumeen eta gizonen taldeen barruan dauden aniztasuna eta desberdintasunak errespetatuz.

5. GENERO IKUSPEGIAREN TXERTATZEA

Euskal herri-aginteek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezar dezaten.

Lege honen ondorioetarako, genero-ikuspegia txertatzea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan desberdinak sistematikoki kontuan hartzea da, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduera espezifikoak txertatzea.

6. EKINTZA POSITIBOA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko, botere publikoek neurri espezifikoak eta aldi baterakoak hartu behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuagatiko egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

7. SEXUAREN ARABERAKO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK EZABATZEA

Euskal herri-aginteek sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak desagerraraztea sustatu behar dute, rol horietan oinarritzen baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna, eta horien arabera esleitzen baitzaie emakumeei etxeko eremuaren erantzukizuna, eta gizonen eremu publikoarena, balorazio eta aitorten ekonomiko eta sozial oso desberdinarekin. Bereziki, etxeko eta zaintzako lanak politika publikoen elementu nagusi gisa aitortzea sustatu behar dute.

8. ORDEZKARITZA OREKATUA

Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar dituzte erabakiak hartzeko eremu guztietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko.

Ordezkaritza orekatuaren printzipioa honako hauetan aplikatuko da: epaimahaien, hautaketa-epaimahaien eta pertsona anitzeko gainerako administrazio-organoen izendapenean, eta euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeetako eta sozietate publikoetako administrazio-kontseiluetako kideen izendapenean.

Pertsona anitzeko organoei dagokienez, lege honen ondorioetarako, ordezkariak orekatu dagoela joko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzeko pertsonak gutxienez % 40ko ordezkariak dutenean. Gainerakoetan, bi sexuetako pertsonak ordezkariak daudenean.

Salbuespenez, eta dagokion erakunde publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duen organo edo organismoaren aldeko txostenarekin, justifikatu ahal izango da pertsona anitzeko organoetan ordezkariak orekatuaren irizpidea ez aplikatzea honako kasu hauetan:

- a) Era objektiboan frogatzen denean kasuan kasuko organoaren erreferentziako sektore edo eremuan sexu bietako pertsonak ez direla % 40ra iristen. Kasu horretan, bermatu egin behar da organoan ordezkariak txikiak duten sexu pertsonak egotea, gutxienez, sektore edo esparru horretan duten presentziaren proportzioan, salbu eta hurrengo paragrafoetan adierazitako inguruabarretako bat gertatzen bada.
- b) Organoan emakumeen ordezkariak % 60tik gorakoa denean, ordezkariak hori bat badator erabakiak hartzeko eremuan emakumeen ordezkariak txikiak izateagatik emakumeek pairatu duten desberdintasun-egoera historikoa zuzentzeko helburuarekin
- c) Dagokion organoan parte hartzeko gaitasun, trebakuntza eta prestakuntza egokia duen sexu jakin bateko pertsonarik ez dagoela modu objektiboan frogatzen denean, edo, pertsona horiek egon arren, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik ezin dutenean halakorik egin.
- d) Organoak karguaren arabera izendatzen direnean edo izendapen hori hainbat instituzio edo erakunde egiten dutenean. Kasu horretan, ordezkariak orekatuaren irizpideari eutsi behar zaio erakunde berak izendatutako pertsonen taldeari dagokionez, salbu eta aurreko paragrafoetan jasotako kasuren bat aplikatzeko bada.

9. LANKIDETZA, KOORDINAZIOA ETA NAZIOARTEKOTZEA

Euskal herri-aginteei garapenerako lankidetzaren politiketan genero-ikuspegia txertatzea sustatu behar dute, bai eta berdintasun-politikak nazioartekotzea ere, ezagutza eta baliabideak atzemateko eta trukatzeko, eta Euskadi nazioarteko ekintzan modu nabarmenean kokatzeko, garapen iraunkorreko nazioarteko agendaren helburu globala betetzeko (sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen ahaldundua lortzea). Hori guztia, mundu globalizatuan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren arazo unibertsalari aurre egiteko funtsezko bide gisa.

10. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Euskal herri-aginteei emakumeen ahaldundua bultzatzeko beharrezko baldintzak ezarri eta egokitzapenak egin behar dituzte, haien aniztasuna kontuan hartuta

Lege honen ondorioetarako, emakumeen ahaldunduetatik hartzen da emakume izateagatik jasaten duten desberdintasun- eta diskriminazio-egoera estrukturalaren kontzientzia individuala eta kolektiboa hartzeko eta beren bizitzetara buruzko erabaki estrategikoak hartzeko eta bizitzaren eremu guztietan genero-arrazoiengatik desberdintasuna eta diskriminazioa indartzen eta iraunarazten duten egiturak eta erakundeak eraldatzeko aukera emango dieten gaitasuna, boterea eta kontrola eskuratzeko egiten duten prozesua.

11. PARTAIDETZA

Euskal herri-aginteeek, politika publikoen garapenean, talde feministen eta emakume-taldeen, gizarte-eragileen eta herritar guztien parte-hartzea eta solaskidetza bultzatu behar dituzte, haien ekarpenei zilegitasun handiagoa emango dien eta ekarpen horiek benetako eragina izango duten partaidetza-eredu demokratikoago bat bultzatzeko. Horretarako, parte hartzeko espazio eta bide egokiak egokitu edo sortuko dituzte, irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

12. BERRIKUNTZA, GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA

EAEko botere publikoek berrikuntza eta berdintasun-politiken etengabeko hobekuntza sustatu behar dituzte, eta gardentasuna eta herritarrei kontuak ematea bermatu behar dute, baliabide publikoen bidez emakumeen eta gizonen berdintasunari nola laguntzen zaion azaltzeko.

13. HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BABESTEVA ETA EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA

Euskal botere publikoek bermatu egin behar dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan hizkuntza-eskubideak baliatuko direla eta euskararen erabilera sustatuko dela. Horretarako, berdintasun-politikak garatzean, besteak beste, zerbitzuak interesdunak aukeratutako hizkuntza koofizialean ematen direla, herritarrei zuzendutako prestakuntza-, partaidetza- eta sentsibilizazio-jardueretan hizkuntza-eskubideak bermatzen direla eta langile eta profesionalei zuzendutako jardueretan euskararen erabilera sustatzen dela ziurtatuko da.

14. INTERSEKZIONALITATEA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Arauak interseksionalitatea du zeharkako printzipio bezala. Hala, identitateak eta haien diskriminazio-sistemak gainjarrita eta interseksioan daude. Beraz, interseksionalitatea tresna analitiko da. Horri esker, generoa eta identitateak gurutzatzeko era eta gurutzaketa horiek nola laguntzen duten desberdinkerian aztertu, ulertu eta erantzun daitezke.

4. II. BERDINTASUN PLANA EGITEKO PROZESUA


II. Berdintasun Plana egiteko bi ekintza-ildo jarraitu dira. Batetik, Plana egiteko kontratatutako erakundearen barneko lan-ildoak. Horren helburua izan da egungo Berdintasun Plana hobetu eta aberastea, erakundearen eta gizartearen gehiago eragiteko.

Eta, bestetik, Batzar Nagusietako taldeekin parte hartzeko estrategia, prozesuaren gakopean diseinatutakoa, Batzarretan ordezkaturako talde politikoetako pertsonak maila handiagoan sentibilizatu, kontzientziatu eta inplikatzeko. Talde politikoekin egindako saio baten xedea da taldeen proposamenak jasotzea II. Berdintasun Planean sartze aldera.



I. Berdintasun Plana hobetu eta aberastea eragin eta inpaktu handiagoak izan ditzan.

EGINDAKO JARDUERA	DESKRIBAPENA	EGUTEGIA 2021
Dokumentazioa berraztertu eta aztertzea	I. Berdintasun Planaren jarraipen-txostena eta txosten operatiboak (2017tik 2020ra) Amaierako ebaluazio-memoria	Ekaina
II. Berdintasun Planaren egitura diseinatzea eta helburuen lehenetsuna antolatzea	Eremuak, ildo estrategikoak eta helburuak diseinatzea	Uztaila
II. Planaren programazioa eta jarraipena diseinatzea	Ekintzak eta prozesuaren nahiz emaitzaren adierazleak diseinatzea	Urria eta azaroa
II. Planaren lehenengo zirriborroa alderatzea	Berdintasun Taldeko 3 kideren (burua barne) eta kanpoko dinamizazio-erakundearen arteko bilera.	Aza-11
II. Berdintasun Planaren 2. zirriborroa egitea	Alderatze-bileraren arabera lehenengo zirriborroa egokitzea	Azaroa
2. zirriborroa alderatu eta baliozkotzea	Berdintasun Taldearen eta kanpoko dinamizazio-erakundearen arteko bilera	Abe-15 eta 2022ko Urt 11




Talde politikoekin partaidetza-prozesua laguntzea

EGINDAKO JARDUERA	DESKRIBAPENA	EGUTEGIA 2021
Berdintasun Taldearen saioa	Prozesuaren abiapuntua II. Plana egite aldera proposamenak alderatu eta baliozkotzeko	Eka-25
1. saioa talde politikoekin	Prozesua eta I. Planeko ebaluazioaren emaitza nagusiak (lorpenak eta erronkak lortzea) aditzera emateko saioa	
	PSE	Uzt-12
	EH BILDU	Uzt-12
	ELKARREKIN PODEMOS	Uzt-15
	EAJ –PNV	Uzt-21
2. saioa talde politikoekin	II. Berdintasun Planaren egitura jakinarazteko eta II. Planeko 1. zirriborroari erantsen aldera ekintza-proposamen zehatzak biltzeko saioa	
	EH BILDU	Urr-13
	EAJ –PNV	Urr-14
	ELKARREKIN PODEMOS	Urr-15
	PSE	Urr-21
	PP	Aza-24

5. II. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA ETA EZAUGARRIAK


Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 3 esku-hartze eremutan antolatuta dago, eta bakoitzak bere ekintza-ildoak ditu, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala.




8 ekintza-ildoek berariazko helburuak eta ekintzak dituzte. Azkenekoak inplementatuta helburuak lortu nahi dira. Guztira II. Berdintasun Planak 22 helburu eta 65 ekintza ditu.

Ondoren, eremu eta ekintza-ildo bakoitzeko helburuen laburpena ageri da.


5.1. GOBERNU ONAREN EREMUAN PLANTEATUTAKO HELBURUAK



5.2. KOMUNIKAZIOAREN EREMUAN PLANTEATUTAKO HELBURUAK



5.3. GIZARTE-ERAGINAREN EREMUAN PLANTEATUTAKO HELBURUAK



5.4. II. BERDINTASUN PLANAREN EZAUGARRIAK

Lehen Planaren printzipio gidariak aipatu dira, Berdintasunerako Euskal Legearen proiektuan eta Foru Arauan zehaztutakoei jarraikiz. Printzipio horiek eta Batzar Nagusien errealitatea aintzat hartuta, erakunde II. Berdintasun Planak ondorengo ezaugarri hauek izango ditu:

- Presidentetzaren eta Berdintasun Taldearen konpromisoa eta lidergoa.
- Bultzatu, jarraitu eta ebaluatzeko orduan langileen eta Batzar Nagusietako taldeen partaidetza.
- Inplementatzean gardentasuna.
- Etengabeko hobekuntza.
- Genero-ikuspegia zeharka ezartzea eta genero-arrakalak identifikatzen diren tokietan ekintza positiboak zehaztea.
- Aniztasuna eta desberdintasuna onestea.
- Izaera eraldatzailea, emakumeak gizartean eta politikan ahalduntzeari, indarkeria matxistaren aurka borrokatzeari eta zaintza gizartean onesteari begira aldaketak sustatzeko.
- Berdintasunaren eremuan indarreko araudia betetzea.

6. II. BERDINTASUN PLANA BULTZATU, KOORDINATU, JARRAITU ETA EBALUATZEKO SISTEMA

6.1. BULTZATU, INPLEMENTATU, KOORDINATU ETA JARRAITZEKO EGITURA: BERDINTASUN TALDEA

Berdintasun Taldearen ardura izango da II. Berdintasun Plana bultzatu, koordinatu eta jarraitzea, eta horren arduradun nagusia erakundeko Presidentetza da. Irudi horren erantzukizunpean geldituko da Batzar Nagusietan berdintasuna bultzatzeko lidergoa eta konpromisoa.

Berdintasun Taldean Batzar Nagusietako taldeetako ordezkariak eta langileen ordezkaria egongo dira.

6.2. JARRAITU ETA EBALUATZEKO SISTEMA

II. Planak errealitateari hurbiltzen zaion plangintza izan nahi du. Gainera, bere helburua da aldaketa-tresna gisa erabilgarria izatea. Horrenbestez, Plana jarraitzea oinarrizkoa da lan-prozesuak eta sortutako aldaketak baloratzeko. Ikaskuntza eta hobekuntza zehatzak identifikatzeari garrantzi handia emango zaio, urteko plangintza operatiboan sartzeko.

Jarraipen-txostena aurkeztuta, urtero jarraituko da, eta prozesu-adierazleak zehazten dira planteatutako ekintzen lortze-maila errazago baloratzeko.

II. Planaren indarraldia amaitutakoan ebaluazioa egitea planteatzen da ere bai. Nolanahi ere, urteko jarraipen-planak sistematizatuko dira eta informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa, jasotzeko prozesu parte-hartzailea bultzatuko da. Xedea ekintzen eta berariazko helburuen lortze-maila ezagutzea da. Horregatik, zenbait emaitza-adierazle definitu dira, ahal den neurrian, urtero kualitatiboki baloratu eta kuantifikatzeko.

6.3. BALIABIDE EKONOMIKOAK

II. Plana inplementatzeko baliabide ekonomikoak behar dira, eta ezinbestekoa da urtean aurrekontua esleitzea urteko plan operatiboa gauzatzeko.

7. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA (2022-2025)

7.1. "GOBERNU ONA" EREMUA

7.1.1. 1. EKINTZA-ILDOA. BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
1.1. Berdintasun Taldea indartzea	1.1.1. II. Berdintasun Planari urteko aurrekontua esleitzea plan operatiboetan planteatutako ekintzak garatzen direla bermatzeko	X	X	X	X
	1.1.2. II. Berdintasun Planari dagokionez, urtero plan operatiboa eta jarraipen-sistema diseinatu eta inplementatzea	X	X	X	X
	1.1.3. Berdintasun Taldeak aldizka bilerak egitea II. Plana jarraitzeko eta horretan planteatutako ekintzak eta estrategiak gauzatzean koordinatzeko	X	X	X	X
	1.1.4. Berdintasun Taldeak garatutako lanaren eta erakundearen izandako eragin-mailaren urteko ebaluazio-sistema diseinatu eta inplementatzea	X	X	X	X
	1.1.5. Berdintasun Taldearen funtzioak definitzea eta Batzar Nagusietako taldeei nahiz langileei aditzera ematea.	X	X	X	X
	1.1.6. Batzar Nagusietako taldeei Berdintasun Taldearen jarduerari buruzko aipamenak bileretan eta informazioetan sar ditzaten gomendatzea.	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Berdintasun Taldearen bilera-kopurua eta partaideen kopurua
- Urtero esleitutako aurrekontuaren zenbatekoa
- Plan operatibo, urteko jarraipen eta amaierako ebaluazioko txostenen kopurua
- Berdintasun Talderako zehaztutako funtzioen kopurua eta mota
- Berdintasun Taldeak langileei eta Batzar Nagusietako taldeei bidalitako informazioen kopurua eta mota

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Planifikatutako ekintzen % 85 egin da
- Aurrekontu guztiaren gainean urtero II. Berdintasun Planari esleitutako aurrekontuaren ehunekoa
- Langileen % 80k eta Batzar Nagusietako taldeen % 80k ezagutzen dituzte Berdintasun Taldearen jarduera eta funtzioak
- Berdintasun Taldearen % 80k gogobetetze-maila altua du egindako ekintza eta funtzioei dagokienez (sexuaren arabera banatuta)

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
	1.2.1. Generoaren ikuspegia txertatu eta berdintasunaren arloan prestakuntza-beharrak identifikatzea	X	X	X	X
	1.2.2. Langileen beharretara doitu, prestakuntza mailakatu eta etengabeko urteko plana diseinatu eta inplementatzea	X	X	X	X
1.2. Batzar Nagusietako taldeen eta langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza areagotzea	1.2.3. Batzar Nagusietako taldeentzat urteko prestakuntza-plana diseinatu eta inplementatzea, karguaren arabera gaitasuna desberdina izan daitekeela kontuan hartuta Garrantzitsua da prestatzea hizkuntza inklusiboa erabiltzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeraren aurrean jardutean genero-ikuspegia txertatzeko	X	X	X	X
	1.2.4. Batzar Nagusietako taldeentzat eta langileentzat hiru hilez behin hausnarketa- eta eztabaida-gunea antolatzea (Solasean) intereseko gaiekin II. Berdintasan Planaren eragina areagotzeko	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Prestakuntzaren alorrean identifikatutako beharren kopurua eta mota
- Langileentzat eta Batzar Nagusietako kideentzat prestakuntzen kopurua (ordu-kopurua) eta mota eta horietan partaideen kopurua (sexuaren arabera banatuta)
- “Solasean” jardueren kopurua eta horietan partaideen (langileak eta Batzar Nagusietako taldeak) kopurua (sexuaren arabera banatuta)

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Langileen % 80k eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 60k prestakuntzaren bat jaso dute berdintasunean (sexuaren arabera banatuta)
- Prestakuntza jaso duten % 80k gogobetetze-maila altua du jasotako prestakuntzari dagokionez (sexuaren arabera banatuta)
- Langileen % 40k eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 40k “Solasean” ekimenetan parte hartzen dute (sexuaren arabera banatuta). Solasean parte hartzen dutenen % 90ek gogobetetze-maila altua dute (sexuaren arabera banatuta)

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
1.3. Gobernu-organoetan eta beste egitura politiko batzuetan emakume eta gizonen ordezkariak paritarioa sustatzea	1.3.1. Datuak sexuaren arabera banatuta biltzea eta batzordeen eta gobernu-organoen osaera nahiz ordezkariak genero-ikuspegiarekin aztertzea	X	X	X	X
	1.3.2. Gobernu-organoen eta beste egitura politiko batzuen kasuan parekotasuna errazten eta zailtzen duten alderdiak identifikatzea	X	X	X	X
	1.3.3. Batzar Nagusietako taldeentzat ekintza positiboak diseinatzea eta gomendatzea ordezkariak-guneetan eta batzorde politikoetan parekotasuna bermatzeko	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Genero-ikuspegiarekin aztertzen diren batzordeen kopurua
- Batzar Nagusietako taldeentzako gomendioen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Batzordeen % 60k pareko ordezkariak dute
- Parekotasuna bermatzeko zehaztutako irizpideen kopurua eta mota

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
1.4. Berdintasunaren arloan lankidetzaren eta koordinazioa areagotzea	1.4.1. Beste euskal erakunde batzuekin (EUDEL, BFA, Basqueskola) ekimenetan parte hartzea	X	X	X	X
	1.4.2. Beste parlamentu batzuekin batera ekimenak egitea; horretarako, berdintasun taldeen baterako bilerak sustatzea berdintasunaren aldeko konpromisoa agerian uzten duten esperientziak eta/edo ekitaldi publikoak partekatzea	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Beste erakunde batzuekin egindako ekintzen kopurua
- Horietan partaideen kopurua (sexuaren arabera banatuta)

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Egindako koordinazioei esker, sartutako hobekuntzen kopurua eta mota
- Topaketan ondoriozko ekimenen kopurua eta mota

7.1.2. 2. EKINTZA-ILDOA. GENEROAREN IKUSPEGIA TXERTATZEA

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
2.1. Batzar Nagusien aurrekontu orokorretan generoaren ikuspegia txertatzea	2.1.1. Batzar Nagusietako aurrekontu orokorrak egokitzea, generoaren ikuspegia sartzeko	X	X	X	X
	2.1.2. II. berdintasun Planaren urteko jarraipen-memorian aurrekontuan generoaren ikuspegia txertatu dela ikusgai egitea	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Generoaren ikuspegia txertatzeko aurrekontuetan sartutako irizpideen kopurua eta mota
- Aurrekontua generoaren ikuspegiaren arabera banatuta duten urteko memorien kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna hobetzera bideratutako urteko aurrekontuaren ehunekoa

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
2.2. Datuak biltzean, azterlanak, memoriak eta estatistikak egitean eta kontratazio publikoaren prozesuetan generoaren ikuspegia txertatzea	2.2.1. Memoretan eta erakundeak bultzatutako jardueretan sexuaren arabera banatutako datuak biltzea eta datu horien analisi kualitatiboan generoaren ikuspegia sartzea	X	X	X	X
	2.2.2. Batzar Nagusien jardueran datuak biltzean aldagai interesgarria (sexuaren aldagaiaz gain) sartzea, emakumeen egoeran eta kokagunean gizarte-eragin handiena duten eremuetan emakumeen dibertsitatea kontuan hartzeko	X	X	X	X
	2.2.3. Kontratazioetan gizarte- eta berdintasun-klausulak mantentzea, EMAKUNDEK kontratu publikoetan generoaren ikuspegia sartzeko gidan emandako gidalerroak kontuan hartuta	X	X	X	X
	2.2.4. Kontratazioetan enpresa esleipendunek Berdintasun Plan egin behar dutela sartzea eta egikaritze-baldintza berezi hori betetzen ez bada zehapen-neurriak aurrez ikustea	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Sexuaren arabera banatutako datuak dituzten memorien eta jardueren kopurua
- Beste aldagai batzuen arabera (adina, jatorria, aniztasun funtzionala, etab.) datuak biltzen dituzten memorien eta jardueren kopurua
- Generoaren ikuspegia kontuan hartuta, analisi kualitatiboa duten memorien kopurua
- Berdintasunaren klausulak kontuan hartuta egindako kontratazioen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Egindako memorien eta jardueren % 60k datuak sexuaren arabera banatuta dituzte
- Egindako memorien eta jardueren % 40k datuak beste aldagai batzuen arabera banatuta dituzte
- Memorien % 60k generoaren ikuspegiaren arabera analisi kualitatiboa egiten dute
- Egindako kontratazioen % 100ek kontuan hartzen dituzte berdintasun-klausulak

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
2.3. Batzar Nagusien araudian berdintasunaren printzipioa sar dadin bultzatzea	2.3.1. Batzar Nagusietako Erregelamendua genero ikuspegitik aztertzea, ekarpenak jaso, hauek aztertu eta dagokion Erregelamenduaren eguneratze prozesuan kontuan hartzea	X	X	X	X
	2.3.2. Batzar Nagusietako taldeei Batzar Nagusietan izapidetzeko aurkezten diren foru-arauetan genero-eraginari buruzko txostenak berariaz kontuan hartu eta baloratzeko eskatzea	X	X	X	X
	2.3.3. Batzar Nagusietako taldeei aztergaien zerrendan landu behar den araudiaren genero-eraginari buruzko balorazioa berariaz sartzeko eskatzea, betiere araudiak emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria eragin berezia badu	X	X	X	X
	2.3.4. Batzar Nagusietako taldeei BFari formalki taldean egindako genero-eraginaren balorazioa itzultzeko eskatzea arauaren eztabaidan kontuan har dezaten	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Batzar Nagusietako araudian sartutako irizpideen kopurua eta mota
- Genero-eraginari buruzko txostenen balorazioa gomendatze aldera Berdintasun Taldeak Batzar Nagusietako taldearentzat bultzatutako ekimenen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Erregelamenduan genero-ikuspegia hobetzeko jasotako proposamenen kopurua
- Genero-eraginaren txostenak berariaz landu dituzten Batzar Nagusietako taldeen bilera-kopurua
- Batzar Nagusietako taldeek formalki itzuli ostean ekarpenak jasotzen dituzten genero-eraginari buruzko txostenen kopurua

7.1.3. 3. EKINTZA-ILDOA. LANGILEAK BERDIN KUDEATZEA

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
3.1. Langileen antolaketa-egituran bereizte-maila bertikal eta horizontala murriztea	3.1.1. Langileen antolaketa-egituran bereizte-maila bertikal eta horizontala jarraitzea	X	X	X	X
PROZESUAREN ADIERAZLEAK:					
<ul style="list-style-type: none"> Egindako balorazioen kopurua eta mota 					
EMAITZAREN ADIERAZLEAK:					
<ul style="list-style-type: none"> Kategoria desberdinetan eta erabaki-postuetan ordezkartza parekatua (% 40-60) dago 					

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
3.2. Norberaren, lanaren eta familiaren bizitzan kontziliazio erantzunkidea bultzatzea	3.2.1. Langileen eta Batzar Nagusietako batzarkide taldeen zaintza beharrak eta etxeko eta laneko eginkizunak kontziliatzeko beharrak identifikatzea eta genero ikuspegitik aztertzea	X			
	3.2.2. Dauden kontziliazio-neurriei eta hobekuntza gisa proposatutako berriei dagokienez, langileen ezagutze- eta gogobetetze-maila identifikatzea	X	X	X	X
	3.2.3. Jaiotzaren edo adopzioaren kasuan baimen berdinen eta besterenezinen bermea mantentzea	X	X	X	X
	3.2.4. Langileen benetako beharretara egokituta erantzunkidetasuneko kontziliazio-neurriak diseinatzea	X			
PROZESUAREN ADIERAZLEAK:					
<ul style="list-style-type: none"> Erantzunkidetasuneko kontziliazioaren eremuan eta zaintzen inguruan identifikatutako beharren kopurua eta mota Sartutako erantzunkidetasuneko kontziliazio-neurrien kopurua eta mota Batzarkide taldeetan zaintzen inguruan txertatutako neurrien kopurua eta mota Kontziliazio-neurriak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua (sexuaren arabera banatuta) 					
EMAITZAREN ADIERAZLEAK:					
<ul style="list-style-type: none"> Kontziliazio-neurriak erabiltzen dituzten emakumeen eta gizonen ehunekoa Ardurapean mendekotasuna duten pertsonak dituztelako kontziliazio-neurriez baliatzen diren langileen ehunekoa (sexuaren arabera banatuta) Kontziliazioa neurrietan emakume eta gizonen artean parekidetasun-maila Langileen % 90ek dauden kontziliazio-neurriekin gogobetetze-maila altua dute 					

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
3.3. Ordainsarien arrakala murriztu eta prebenitzea	3.3.1. Langileen lanbide-kategorien arabera ordainsariak genero ikuspegitik aztertzea		X		
	3.3.2. Ordainsarien arrakala prebenitu eta zuzentzeko estrategia diseinatzea, arrakala sor dezaketen arrazoen gainean jardunda		X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Ordainsarien arrakala prebenitu eta/edo zuzentzeko inplementatutako neurrien kopurua eta mota

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Neurriak diseinatu ondoren ordainsarien arrakala-mailan aldea

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
3.4. Indarkeria matxistarik gabeko lan-ingurunea bultzatzea	3.4.1. Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa inplementatzea	X	X	X	X
	3.4.2. Batzar Nagusietako taldeentzat indarkeria matxistaren adierazpenen aurrean prebenitu eta jarduteko dekalogoia egitea	X			

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloaren hedapen-kopurua
- Indarkeria matxistarik gabeko ingurunea bultzatzeko gomendioak dituen dokumentua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Langileen % 100ek ezagutzen dute sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa
- Jarrera eta portaera matxistei eutsiz, langileen eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 80k inguruneke giroarekin gogobetetze-maila altua dute

7.2. KOMUNIKAZIOAREN EREMUA

7.2.1. 4. EKINTZA-ILDOA. BARNE KOMUNIKAZIOA

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
4.1. Erakundearen barruan zabaltzen diren dokumentu, txosten, komunikazio, eta abarretan hizkuntza eta irudi ez-sexista eta inklusiboa bultzatzea.	4.1.1. Bizkaiko Batzar Nagusien Berdintasunezko Komunikazioari buruzko Gida aldizka zabaltzea.	X	X	X	X
	4.1.2. Gidaren edukiak Batzar Nagusietako taldeei hurbiltzeko berariaz gaitzea	X	X	X	X
	4.1.3. Zenbait barne-dokumentu, langileentzako komunikazioak, txostenak, azterlanak, etab. urtean aldizka ikuskatzea.	X	X	X	X
	4.1.4. Dokumentazioa hizkuntza inklusiboaren eta ez-sexistaren irizpideekin bat etorri egokitzea	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Bizkaiko Batzar Nagusietan Berdintasunezko Komunikazio Gida bultzatzeko ekimenen kopurua
- Hizkuntza inklusibo eta ez-sexistaren irizpideen arabera egindako ikuskapenen eta moldapenen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Dokumentuen % 100ek hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista sartuta du
- Langileen eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 80k hizkuntza modu inklusiboan eta ez-sexistan erabiltzen du (sexuaren arabera banatuta)

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
4.2. Langileen eta Batzar Nagusietako taldeen artean berdintasunaren arloan ekintza eta edukiak heda daitezen sustatzea	4.2.1. II. Berdintasun Planari eta harekin zerikusia duten beste argitalpen batzuei (hala nola <i>Berdintasunezko Komunikazio Gida</i>) buruzko ongietorri-txostena banatzea legealdia hasten duten Batzar Nagusietako taldeei			X	
	4.2.2. Legealdi bakoitzean II. Berdintasun Plana eta berdintasunaren arloan beste argitalpen aipagarri batzuk hautatutako pertsona berriei aurkeztea			X	
	4.2.3. II. Berdintasun Plana eta urteko plan operatiboak nahiz jarraipen- eta ebaluazio-txostenak hedatzea	X	X	X	X
	4.2.4. II. Berdintasun Planaren ekintza zehatzetan langileen eta Batzar Nagusietako taldeen partaidetza hedatu eta indartzea	X	X	X	X
	4.2.5. Berdintasunaren arloan beste erakunde batzuek egindako intereseko materialak hedatzea	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Berdintasun-materialak eta -ekintzak heda daitezen bultzatzeko ekimenen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Langileen % 100ek eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 80k berdintasunaren inguruko materialak ezagutzen dituzte (sexuaren arabera banatuta)
- Langileen % 90ek eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 80k II. Berdintasun Planaren ekintzetan parte hartzen dute (sexuaren arabera banatuta)

7.2.2. 5. EKINTZA-ILDOA. KANPO KOMUNIKAZIOA

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
5.1. Erakundeak berdintasunaren alde duen konpromisoa ikusgai bihurtzea	5.1.1. Webgunean berdintasunaren arloko plangintza eta ekintzen berriak hedatzea.	X	X	X	X
	5.1.2. Erakundeak berdintasunaren esparruan emandako aurrerapausoak eta hartutako konpromisoak berriaz aditzera emateko berriak egitea.	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Berdintasunaren gaiarekin lotuta webgunera igotako berrien kopurua eta mota
- Berdintasunari lotuta, webgunean ikusgai jarritako materialen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Webgunean argitaratutako berrien % 40k berdintasunaren gaiarekin zerikusia dute.
- Langileen eta Batzar Nagusietako taldeen kideen % 80k (sexuaren arabera banatuta) berdintasunaren aldeko konpromisoarekin gogobetetze-maila altua dute

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
5.2. Herritarrei hedatutako berri, txosten, kartel, eta abarretan hizkuntza eta irudi ez-sexista eta inklusiboa bultzatzea	5.2.1. Irudiak argitaratzeko orduan kontuan hartzeko irizpidea: emakumeen aniztasuna eta genero-rolak haustea	X	X	X	X
	5.2.2. Urtero aldizka berriak, kartelak eta argitalpenak ikuskatzea, hizkuntza inklusiboa eta irudiak (genero-rolak urratzen dituztenak eta aniztasuna ikusgai uzten dutenak) nola txertatu diren baloratzeko	X	X	X	X
	5.2.3. Dokumentazioa hizkuntza inklusibo eta ez-sexistaren irizpideekin bat etorri egokitzea eta genero-rolak mantentzen dituzten irudiak aldatzea	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Ikuskatutako eta hizkuntza inklusiboa sartu eta genero-rolak urratu eta aniztasuna ikusgai uzteko irudiak erabiltze aldera egokitutako dokumentuen, berrien eta material grafikoekoen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Herritarrentzako dokumentuen, berrien eta material grafikoekoen % 100ek irizpide horiek sartu dituzte

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA				
		1	2	3	4	
5.3. Berri, prentsa-ohar eta komunikazio publikoetan generoaren ikuspegia txerta dadin sustatzea	5.3.1. Ordezkaritza mediatiko gabekoa eta orekatua behar diren irizpideen zerrenda egin eta Batzar Nagusietako taldeei aditzera ematea		X	X	X	X
	5.3.2. Onartutako irizpideak ikuskatzea		X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Hedatutako irizpideen kopurua eta mota
- Irizpideak jasotzen dituzten pertsonen ehunekoa (sexuaren arabera banatuta)
- Egindako ikuskapenen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Batzar Nagusietako taldeen % 50ek generoaren ikuspegiarekin estaldura mediatikoaren irizpideak sartzen dituzte

7.3. GIZARTE-ERAGINAREN EREMUA

7.3.1. 6. EKINTZA-ILDOA. EMAKUMEAK TALDEAN ETA GIZARTEAN AHALDUNTZEA

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
6.1. Bizkaiko historian, kulturen eta gizartearen emakumeek egindako ekarpena aintzatetsi dadin sustatzea	6.1.1. Gernikako Batzar Etxean ekintza positiboak bultzatzea Bizkaiko emakumeak ikusgai izan eta aintzatesteko		X		
	6.1.2. Herritarrentzako jarduerak egitea, emakumeek Bizkaiko gizarteari egiten dioten ekarpena bistaratu eta onartzeko	X	X	X	X
	6.1.3. Emakumeek Bizkaiko historiari, ekonomiari, kulturari eta lurraldeko politikari egin dizkioten ekarpenei buruzko azterlanak egitea	X	X	X	X
	6.1.4. Emakume hautatuen urteko batzarra egitea	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Bizkaiko emakumeak ikusgai bihurtu eta aintzatesteko inplementatu diren ekintza positiboek kopurua
- Herritarrentzako ekintzen kopurua eta horietan partaideen kopurua (sexuaren arabera banatuta)
- Egindako berariazko azterlanen kopurua
- Batzarren kopurua eta horietan partaideen kopurua (sexuaren arabera banatuta)

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Emakumeen ekarpena aintzatesten duten azterlanen ehunekoa (% 60)
- Emakume hautatuen % 90ek batzarrekin gogobetetze-maila altua dute
- Langileen eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 80k emakumeen aintzatespena bultzatzeko ekintzekin gogobetetze-maila altua dute (sexuaren arabera banatuta)

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
	6.2.1. Martxoaren 8a oroitzeako erakunde-adierazpena egitea	X	X	X	X
6.2. Berdintasunaren arloko lorpenetan feminismoa aintzatetsi dadin bultzatzea, baita aniztasun sexualaren ikustaraztea ere	6.2.2. Martxoaren 8an herritarrentzako jarduera antolatzea (jardunaldia, hitzaldia, erakusketa, etab.).				
	6.2.3. Aniztasun Sexuala ikustarazteko ekintzak bultzatzea	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- 8M inguruan ekintzen kopurua eta horietan partaideen kopurua (sexuaren arabera banatuta)
- Aniztasun sexuala ikustarazteko bultzatutako ekintza kopurua eta parte hartzaile kopurua (sexuaren arabera banatuta)
- Berdintasunari lotuta, webgunean ikusgai jarritako materialen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Langileen eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 80k feminismoaren aintzatespena bultzatzeko ekintzekin eta aniztasun sexuala ikustarazteko ekintzekin gogobetetze-maila altua dute (sexuaren arabera banatuta)

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
	6.3.1. Berdintasun Lantaldea eta Bizkaiko Emakumeen Partaidetza Kontseiluaren arteko hausnarketa eta eztabaidarako gunea sortzea	X	X	X	X
6.3. Erakundearen bizitzan emakumeen partaidetza areagotzea	6.3.2. Emakumeen erakundeei gonbita luzatzea, osoko bilkura eta Batzar Etxeen ekitaldi sinbolikoetan parte hartzeko	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Emakumeen partaidetza sustatzeko bultzatutako ekimenen kopurua
- Emakume partaideen kopurua
- Talde partaideen kopurua eta mota

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Berdintasun Lantaldea eta Bizkaiko Emakumeen Partaidetza Kontseiluaren artean urtero gutxienez bilera bat burutzen da.
- Hausnarketa-guneetan emakume partaideen gogobetetze-maila altua da
- Topaketan ondoriozko ekimenen kopurua eta mota

7.3.2. 7. EKINTZA-ILDOA. EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTA

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
7.1. Indarkeria matxistaren aurrean erakundearen gaitzespen irmoa ikusgai bihurtzea	7.1.1. Erakundearen eraikinetan gaitzespen-bereizgarriak bistaratzea Bizkaian eraillketak eta/edo indarkeria matxistaren eraso larriak daudenean	X	X	X	X
	7.1.2. Erakundearen izenean salaketa publikoko egintzetan parte hartzea, Bizkaian indarkeria matxistaren kasuak gertatzen direnean (Presidentetza eta eraso izan den eremuko Batzar Nagusietako kideak)	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Bistaratu diren gaitzespen-bereizgarrien kopurua
- Indarkeria matxista gaitzesteko Bizkaian deitu diren egintza publikoen kopurua erakundeak parte hartu badu, eta erakundeak partaideen kopurua (sexuaren arabera banatuta)

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Eraso eta/edo eraillketak matxistekiko Batzar Nagusien gaitzespena adierazteko argitaratutako berrien kopurua
- Langileen eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 80k egindako ekintzekin gogobetetze-maila altua dute (sexuaren arabera banatuta)

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
7.2. Indarkeria matxista prebenitzeko sentsibilizazioa eta kontzientzia areagotzea	7.2.1. Indarkeria matxista gaitzesteko erakunde-adierazpena egitea Bizkaian indarkeria matxistaren eraillketak eta/edo eraso larriak gertatzen direnean	X	X	X	X
	7.2.2. Azaroaren 25aren inguruan herritarrentzako jarduera antolatzea (jardunaldia, hitzaldia, erakusketa, etab.)	X	X	X	X
	7.2.3. Bizkaian indarkeria matxistaren modu desberdinen errealitateari buruzko azterlana egitea, aintzat hartuta emakumeen dibertsitatea	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- 25Aren inguruan ekintzen kopurua eta horietan partaideen kopurua (sexuaren arabera banatuta)
- Egindako berariazko azterlanen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Bizkaian indarkeria matxistaren eraillketak eta/edo eraso larri guztien gainean egindako erakunde-adierazpenen % 100
- Egindako berariazko azterlanen ehunekoa (% 30)
- Langileen eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 80k egindako ekintzekin gogobetetze-maila altua dute (sexuaren arabera banatuta)

7.3.3. 8. EKINTZA-ILDOA. ZAINZAK ONESTEA

HELBURUAK	EKINTZAK	URTEA			
		1	2	3	4
8.1. Bidezko gizartea eraikitzeko zaintzen eremua onets dadin bultzatzea	8.1.1. Herritarrentzako jarduerak, ikerketak, argitalpenak, etab. gauzatzea, gizartea ekonomikoki eta sozialki antolatzean zaintzaren garrantzia bistaratu eta onesteko	X	X	X	X

PROZESUAREN ADIERAZLEAK:

- Ekintzen kopurua eta horietan partaideen kopurua (sexuaren arabera banatuta)
- Egindako berariazko azterlanen kopurua

EMAITZAREN ADIERAZLEAK:

- Egindako berariazko jardueren, ikerketen, etab.-en ehunekoa (% 30)
- Langileen eta Batzar Nagusietako taldeetako kideen % 80k egindako ekintzekin gogobetetze-maila altua dute (sexuaren arabera banatuta)